

A I N H O A



HERRIKO ALDIZKARIA

2022ko urtarrila

EDITORIALA

Osasun larrialdiarengatik elkarrekin bizitzeko gure usaiak aldatu behar izan ditugu, baina normalki bizitzen segitzea da gure xederik handiena.

Zerbitzuak, eskola eta elkarteen harrera segurtatuak dira, inposatuak zaizkigun eta erregulariki berriak diren osasun protokoloen arabera.

Irakasleak eta herriko langileak eskertu nahi ditut haurren eta herritarren alde inplikaturik.

Herriko Etxeko talde guziaren izenean, ene agiantzarik hoberenak desiratzen dizkizuet 2022. urte honetarako.

EUSKAL HIRIGUNE ELKARGOIA

URDAZUBI eta EUSKAL HIRIGUNE ELKARGOAREN arteko lotura

Euskal Elkargoak eta Nafarroak hitzarmena izenpetuko dute Urdazubiren eta Ainhoaren artean edateko uraren lotura baldintzak plantan ezartzeko.

Prezioa, denbora, kantitatea, kalitatea, etab.

Lotura hori ibiltzen hasi zen abenduko uholdeen mementoan; Herburuko lantegia hiru orenez gelditu zen, eta Ainhoara edateko ura Urdazubitik heldu zen.

Euri ur sarea

Karrika Nagusiko ipar parteko euri uren aterabide sarea berri ahal izan da emanak ziren epeetan eta finkatu baldintzen bildumaren arabera.

Milesker karrika luzaz hetsirik egonik nahigabeak pairatu dituzten ainhoar guziei. Obra horiek Euskal Hirigune Elkargoak ditu osoki finantzatu: 145 765 €.

BIDEAK ETA GUNE PUBLIKOAK

E186 lursailaren eskuratzea

Herriko Etxea E 186 lursailaren eskuratzeko bidean da; 750 m²-ko hedadura du eta 7 500 €-saltzen du Inbestimendu eta Parte Hartze Konpainia Nagusiak. Konpainiak Massonde senar-emazteei erositako lursaila, herri erdian autoak aparkatzeko leku gehiago izanen da horrela.

E49, E50, E51, E53 eta E54 lursailen eskuratzea

Herriko Etxea E849, E850, E851, E853, E854 lursailen eskuratzeko bidean da, IRALA kideen E52 lursaila zatitu ondoan; 1 537 m²-ko hedadura du, 1 5370 € gosta du.

Hilerrien handitzeko.

Lahandietako kadastra-bidearen zabaltzeko.

Mendiondoko bidearen zabaltzeko.



Herriko argiak

Ekologia zaintzeagatik, Herriko Etxea gogoetan ari da gauaz herriko argiak itzaltzea denbora tarte batez.

Minutuko aparkalekuak

Karrika Nagusiko autobus geldilekuaren ondoan diren 2 aparkalekuak minutukoak izanen dira zerbitzu gunean aparkatzen diren ibilgailuen aldizkatzea errazteko.

Bideak

Bideak berritzeko obrak eginen dira lehen urte erdi honetan:

- ◆ Amuntsainetik-Armaiarako bidea
- ◆ Akateneko bidea
- ◆ Janmarienborda

MUXELTEGIKOBORDA

LTEP eta COL erakundearekin partaidetzan, Herriko Etxeak Muxeltegikobordaren antolaketa proiektua aitzina darama. Haatik, Delanne arkitekto bulegoak proiektua THPren eta Frantziako Eraikinen arkitektoaren eskakizun berrien arabera egokitu behar du.

HIRIGINTZA

2022ko urtarrilaren 1az geroztik, Herriko Etxeak hirigintza baimenak galdatzeko dossier desmaterializatuak har ditzake. Herriko Etxearen webgunean bada plataforma bat espresa, "Hirigintza" hozkan sartu ondoan.

SALTEGIAK / ZERBITZUAK

Ogi banatzailea

Urtarrilaren 3etik martxan da Kanboko DORREA okindegiak Karrika Nagusian ogi banagailu bat plantan ezarri du, eliza ondoko autobus geldilekuan. Banagailu automatizatu horri esker ainhoarrek gau eta egun eros dezakete ogi freskoa (asteazkenetan salbu).

Zerbitzu berriak

Mathieu Roux ortofonista: Burena gelan (09 82 46 69 09)

Odile Goyeneche osteopata: 06 33 54 86 78

ESKOLA

Abenduaren 17an, ostiral arratsaldearekin, eskolako ikasleek Bizarzuriren bisita ukan dute.

Ikastalde guzietako haurren ikustera etorria zen, eta Eguberri on bat desiratu die.

Ez da esku hutsik jin, izaiaren azpian opari franko utzi baitzuen, eta haur bakoitzari liburu bat eman dio haren izenarekin eta txokolatezko Bizarzuri bat. Bisitaren bururatzeko, hor ziren buraso zenbaitek eta herriko langileek prestatu txokolatesnea ukan dute haurrek kantina berrian. Ikasleak luzaz oroituko dira arratsalde goxo horretaz.

Milesker Bizarzuriri Ainhoaraino jinic.

2022ko urtarrila

Haurren izen ematea 2022ko eskola sartzera

2019an sortu haurren burasoei galdegina zaie Herriko Etxera jitea haien haurraren izena emateko. 2020an sortu haurren burasoei galdegina zaie Herriko Etxeari jakinaraztea.

HERRIKO LANGILEAK

Robert Zalduaren eta Fabienne Maynadiéren segida

Robert Zalduak eta Fabienne Maynadiék erretreta hartu baitute, Herriko Etxeak 2 lanpostu sortu ditu: gaitasun anitzeko teknika laguntzaile postu bat denbora osoz berde guneen eta eraikinen mantentzeko Robert Zalduaren orde; animazio langile postu bat denbora ez osoz (19 oren astean) eskolaldi inguruko denboran zaintza eta animazioa egiteko, baita ere eraikinen mantenua Fabienne Maynadiéren orde.

Kandidatura dossier franko aztertu ondoan eta lehen hautaldiko kandidatuen elkarrizketa egin ondoan, Herriko Kontseiluak hautatu ditu Ramuntcho ENDARA eta Elodie HORVAT, eta hauek 2022ko urtarrilaren 1ean hasi dira lanean. Ongi etorri biei Herriko Etxeko taldean.

HERRIKO BIZIA

Ainhoarren eta herriko kontseilarien arteko elkarretaratzeak

Herriko Kontseiluak proposatzen du ainhoarren eta kontseilarien artean elkar entzuteko tarte bat plantan ezartzea hilabeteko laugarren larunbat guziez, 9:30etik 12:00etara, Herriko Etxean. Gai guziak aipatzen ahalko dira (herriko bizia, auzoko bizia, etab.) konstruktiboak nahi genituzkeen elkarretaratze horietan.

ELKARTEAK

Ainhoa animation

Ainhoa Animation elkartearen Biltzar Nagusia joan den abenduaren 2an iragan zen. Bulego osoak kargua utzi du (lehendakariak, idazkariak, diruzainak), eta elkartearen ezohiko Biltzar Nagusia egitekoa da 2022. urte hastapen honetan, elkartearen etorkizunaz erabakiak hartzeko. Oroitaraz dezagun Ainhoa Animation usoaren bestaren antolaketaz arduratzen zela, ofizialeen egunaz, Euskal Herriko ekoizleen merkatuaren animazioaz eta bertan erakusmahai bat bazuela, etab.

Orain gogoeta bat eraman beharko da jakiteko ainhoarrak herriko animazioetan parte hartzeko prest direnez.

Ainhoa beti

Ainhoak elkarte berri bat badu, 2021. urte hondarrean sortua. Ainhoa Beti du izena, Nekane Daguerre anderea da lehendakaria, eta ainhoarren biziaren hobetzea du xede, ingurumenaren aldetik.

BESTE

Webgunea

France Relance planaren karietara, eta Ainhoako Herriko Etxearen dosierra aztertu ondoan, finantzamendu bat lortu dugu gure webgunearen berritzeko. Webgunea modernoagoa izanen da, eta gainera ikusmen eta entzumen urriko pertsonak ere bertan sartzen ahalko dira.



Tailer numerikoak

Tailer numerikoak (informatikako lehen irakaspenak) iragan dira 2021eko hirugarren urte laurdenean, eta arrakasta handia bildu dute; 6 parte hartzaileek formakuntza segitu nahi dute. Beste tailer batzuk iraganen dira martxoaren 31n eta apirilaren 7an, 14an eta 21ean.

Panneau Pocket

Panneau Pocket aplikazioa eguneratu da. Beti dohainik da, konfidentziala da eta errazki telekarga daiteke sakelako telefonoan; herriko biziaz argibide praktikoak zuzenean ukaiteko parada eskaintzen du.

Txertaketa

Azken txertaketa aldia 2022ko urtarrilaren 14an bururatu zen 3. txertoaren egiteko; 200 bat ainhoarrek Pfizer txertoa errezibitu dute Ainhoan.

Eguberriko jostailuak

Herriko Etxeak eskertzen ditu jostailuak Herriko Etxean utzi dituzten ainhoarrak; erakunde batzuei eman ditugu haiek haurrei banatzeko gisan Eguberriren kariatara.

Adinekoen Eguberriko apairua

Osasun testuinguruarengatik ere, usaiako Eguberriko apairua egin ahal izan dute adinekoek, giro alai eta goxoan, abenduaren 9an, Ur Hegian jatetxean.

2021ko EGOERA ZIBILA

Sortzeak

ASSEMAT Castille, Marie, Zélie 2021/04/21ean sortua
BOUASSI MEZZOJ Yassir 2021/10/5ean sortua
EZCURRA Emy, 2021/01/04an sortua
GOYENECHE Maïka 2021/05/16an sortua
ITHURBIDE Lena, 2021/08/25ean sortua
RESANO LACROIX Peru, 2021/11/20an sortua
TELLECHEA Olivia, 2021/05/13an sortua
OBERSON-PARCELLIER ZAMORA Imanol, 2021/12/30ean sortua

Ezkontzak

ALLOMBERT Antoine Guy Eugène eta de MONTGOLFIER Anne Catherine, 2021/08/07an
FRANCHISTEGUY Bernard eta IRIGOYEN Cécile, 2021/10/02an

Hiltzeak

DOTTAX Clément, Dominique, 2021/08/27an
GUILÇOU Jean-Baptiste, 2021/02/13an
IBARLUCIA Martin, Michel, 2021/02/20an
LARRALDE, DESMETTRE sortua, Lucette, Louisette, 2021/01/29an
MARTICORENA Michel, 2021/03/25ean
PAGNIER Philippe, Jean-Michel, 2021/07/27an
ZALDUA Pierre, 2021/03/28an